




# Neurtu Zure Tratu Ona

Gizarte baketsuak eta inklusiboak eraikitzen ditugu haurtzarotik

# EZAGUTU:

Ezin dugu gaizki  
ez tratatzearekin  
konformatu

Tratu onak definitzeko, Educo-n haur eta nerabeei entzun diegu. Abusu fisikoa ekiditea baino gehiago dela gogorarazi digute. Oihuak, jarrera txarrak eta gutxiespenak baztertzea eta haien iritziei entzungor ez egitea ere bada. **Enpatiaz eta errespetuz jardutea eta haiei entzutea dira tratu ona emateko oinarriak.**



Kontua tratu txarrak errotik erauzteaz haratago doa, **zaintza, elkarrizketa, espazio seguruak sortzea eta harreman osasungarriak** defendatzen baititugu. Haurren eta nerabeen eskubideak betetzen direla bermatu nahi dugu.

**Gehiago jakiteko**, sartu gure kanpainaren webgunera eta bideora:

WEBGUNEA

BIDEOA

# EGIAZTATU:

Nola ari zara? • Ba al dago hobetu daitekeenik?

**Educo-n, tratu onetan pentsatzen dugunean,  
funtsezko lau elementu hartzen ditugu ardatz gisa:**

1  
2  
3  
4

## Espazioak eta denbora

haur eta nerabeen jarduera-eremuak atseginak, irisgarriak eta esperimentatzeko eta jolasteko egokiak izan behar dira. Gainera, haien denborak eta erritmoak errespetatu behar ditugu, erabakietan parte hartzen utzi, eta bakoitzaren erantzukizunak modu demokratikoan adostu.

## Hizkuntza eta komunikazioa

haiei eragiten dieten gaiei buruzko informazioa modu argian eta ulergarrian eman behar zaie, haien isiltasuna errespetatu, zalantzak adierazten lagundu, hizkera adeitsua eta zintzoa erabili, eta interesez eta arretaz aritu.

## Emozioak eta norberaren zaintza

atsedena erraztu behar da, gorputza eta adimena lantzeko ariketak burutu, autonomia sustatu, eta emozioak ulertu eta maitekiro landu.

## Harreman pertsonalak

harremanek bizitzaz, familiaz eta komunitateaz umorez eta baikortasunez gozatzeko aukera eman behar diete. Maitasunean, erabakiak partekatzean, elkarlanean eta gatazkak entzunez eta enpatiaz ebaztean oinarritu behar dira..



## Zer proposatzen dizugu?

Aipatutako lau elementuei buruzko hausnarketa kolektiboa egitea, eta zuen tratu ona neurtzea.

→ Familian egin dezakezu

FAMILIA TRATUONGILEENTZAKO BALIABIDEAK

→ Irakaslea bazara, gure kartel neurtzailea erabil dezakezu. Hemen aurkituko duzu, beste baliabide batzuekin batera:

IRAKASLEENTZAKO BALIABIDEAK



# EKIN:

## Tratu onetan aurrera egin

Behin zure tratu ona neurtuta, **lanari ekiteko unea iritsi da:**

- Taldean edo familian hobetu beharreko alderdiren bat dagoela ondorioztatu baduzue, guztien artean erabaki **zer erronka gainditu behar dituzuen, tratu onetan aurrera egiteko**. Hurbilagoko helburuak ezar ditzakezue, batetik, eta epe ertain eta luzerakoak, bestetik.
- **Tratuongile gisa izena eman** dezakezu, hartutako konpromisoak gogoan izaten laguntzeko.
- **Ingurukoen artean zabaldu, eta haiek ere sentsibilizatu**. Ziur gaude gaian interesa duen jendea ezagutzen duzula. Eman triptiko hau, edota partekatu kanpainaren webgunea eta bideoak.
- **Hezkuntzan** lan egiten baduzu, ikasgeletarako gida espezifiko egin dugu. Ziur gaude interesatuko zaizula.

IZENA EMAN NAHI DUT

IKASGELARAKO GIDA



Eta ez ahaztu tratu ona etxean edo ikastetxean gertatzen denaz haratago doala, eta garrantzitsua dela bakearen kultura mundu osoan sendotzea. **2030 Agendako 16. Garapen Jasangarriko Helburuarekin** lotutako guztiaren jakinaren gainean egotera animatzen zaitugu.


16. GJH

# EGUNERATU:

Ez ahaztu ospatzeaz eta hobetzen jarraitzeaz!



Atzera begiratzea eta lortutako guztia ikustea pizgarri ona izan ohi da. Aldi berean, egiteke dagoenaz ohartzeko ere balio du. Ildo horretatik, **komenigarria da noizbehinka “Egiaztatu” puntura itzultzea, zuk eta zure familiak edo hezkuntza-komunitateak tratu onean aurrera egiten jarrai dezazuen.**



# #NeurtuZureTratuOna

[elmejortrato.es](http://elmejortrato.es)

finantzatzailea: